



URTEBETZE OSPAKIZUNAK LAUDIO TXIKIN

Urtebetetzeak data bereziak dira, urteak betetzen dituenarentzat eta ondoko lagun zein senideentzat ere. Ospakizun hauetarako erritual proposamena da hau, bakoitzak bere errealitatera egokitu daitekeena.

EGUZKIA

Burbuila bakoitzeko eguzki bat izango dugu eta umeek uneoro ikus dezaketen leku batean jarrita egongo da. Urtebetetze egunean, goizeko lehen unetik sarreran jarriko dugu umearen argazkiarekin.



URTEBETZE EGUNEAN EKARRI BEHARREKO ARGAZKIAK

Familia bakoitzari 3 argazki esan-guratsu eskatuko zaizkio: argazki bat jaio berritako eta besteak umearekin batera aukeratutakoa, aukeraketa honi denbora eskaintzea garrantzitsua da.



Urtebetetze egunean umeak ekarriko ditu Ikastolara argazki hauek (izan daiteke kutxatxo baten barruan... zerbait berezi eta inportantea bezala) eta eguzkiaren pintzetan jarriko ditugu.

ERRITUALA

Gustuko dugun leku goxo eta lasai bat topatuko dugu. Bertan, alfonbra baten erdian, sortu dugun EGUZKIA jarriko dugu. Eguzkiaren erdigunean kandela (hainbat urte, zenbat kandela) jarri eta piztuko dugu, eguzkiaren berotasuna eta argia sinbolizatzen.

Ospakizuneko lagunak lurtean eseriko dira borobil bat osatuz. Urteak betetzen dituen haurra ere borobilean eseriko da.

EGUZKIARI BUELTA

“Lurrak eguzkiari buelta eman dio eta _____-k _____ urte bete ditu” esango dugu eta jaio zen hilabetetik hasita eguzkia inguratuko dugu gure atzamarrarekin (eguzkiari bira emango diogu). Eguzkiari bira bakoitzak urtea irudikatzen du, beraz, eguzkiari birak urteen kopuruaren arabekoak izango dira.

Errituala ixteko, guztion artean abesti bat kantatuko dugu eta haurrak kandelari putz egingo dio (edota lagunduko diogu).



ARGAZKI BILDUMA OSATUKO DUGU GELAN

Urtebetetze ospakizuna bukatzen denean, eguzkian erabilitako argazkiak, argazkien koadroan erabiliko ditugu. Argazki hauek argazkien koadroan pintzekin eskegita egongo dira umeen altueran. Azpian argazkietarako kutxatxoa eta pintzetakoa egongo da. Umeek edozein momentutan argazkiak eskegitzeko, kentzeko... aukera izango dute.

ETXEAN ERE BURUTZEKO ERRAZA

Erritual hau etxean prestatzea oso erraza da: kartoizko borobil bat eta pintzak besterik ez duzue behar izango. Anima zaitezte!!!!

HASIERAKO ARGAZKIA

Ekintza honi hasiera eman ahal izateko, ahalik eta azkarren zuen umearen argazki esanguratsu bat ekartzea eskatzen dizuegu (bere urtebetetze egunean ekarri behar dituenaz gain).

